



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Deialdia, lehiaketa-oposizio bidez betetzeko hamaika administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamar Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta bat, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoa.

OPOSIZIOALDIKO LEHEN PROBA EGITEKO TOKI, EGUN ETA ORDUAREN ZEHAZTAPENA

Hamaika administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak –horietarik hamar, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak (bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin), eta bat, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoa– oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko epaimahai kalifikatzaileak, 2023ko azaroaren 3an eginiko bilkuran, honako ERABAKIA hartu du:

- 1.- Ezartzea ezen oposizioaldiko lehen proba **2023ko abenduaren 2an egingen dela, larunbatarekin, 09:30ean**, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasgelategian (Arrosadia campusa, z/g, Iruña).
- 2.- Egun hori baino lehenago, bide hauxe bera erabiliz jakinaraziko da nola banatuko diren izangaiak ikasgeletan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA,